

Azterketak



Eusko Jaurlaritzak
eta Nafarroako Gobernuak
2010erako Aurkeztutako
Aurrekontu Proiektuen
balorazioa

ELAko Azterketa Bulegoa

Non zer

AURKEZPENA	3
A. GASTUARI, SARRERARI ETA BI ALDERDIOK HEHEN DUTEN LOTURARI BURUZKO ONDORIOZTAPEN ERKIDEAK	3
1. Hego Euskal Herrirako taxututako Aurrekontu Proiektuei buruzko ondorioztapenak.....	3
2. Aurreko urteetako aurrekontu emaitzak	5
3. Hego Euskal Herriko Gobernuen Zor Publikoa	7
4. Gastu Fiskalak	8
5. Osasuneko Gastu Publikoa, Europako txikiena.....	10
6. Hezkuntzako Gastu Publikoa, Europako txikiena	11
B. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA 2010. ELAREN BALORAZIOA	12
1. Gastu Publikoaren beherapena 2009ko urtealdikoarekiko	12
<i>Gastu publikoak ekonomian duen pisuaren bilakaera</i>	<i>14</i>
2. Osasuneko Gastu Publikoa	14
3. Hezkuntzako Gastu Publikoa	15
4. Etxebizitzako Gastu Publikoa.....	17
C. NAFARROAKO GOBERNUAK 2010ERA KO AURKEZTUTAKO AURREKONTU PROIEKTUA ETA ZERGA ERREFORMAK	18
Sarrera	18
1. Aurrekontu Proiektuaren analisia	18
a) <i>Taxututako aurrekontua engainagarria da.....</i>	<i>18</i>
b) <i>Gastua izoztu egin da</i>	<i>19</i>
c) <i>Gastu publikoak ekonomian izan duen bilakaera</i>	<i>20</i>
d) <i>Osasuneko gastu publiko handiagoa behar da</i>	<i>21</i>
e) <i>Europako azkenak, Hezkuntzako Gastu Publikoan.....</i>	<i>22</i>
f) <i>Euskarako Gastu Publikoa</i>	<i>23</i>
g) <i>Etxebizitzako inbertsioa</i>	<i>23</i>
h) <i>Zerga iruzurrari ez zaio kontra egiten</i>	<i>25</i>
2. Zerga arloa: zergen erreformaren azterketa	26
Sarrera	26
a) <i>Zerga-erreformen banakako azterketa</i>	<i>26</i>
b) <i>Ondorioztapenak</i>	<i>28</i>
c) <i>ELAren proposamenak</i>	<i>29</i>
OHARRAK	29

AURKEZPENA

Azterlan honetan Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak 2010eko urtealdirako prestatu dituzten aurrekontu-proiektuak jorratuko ditugu, bai eta gastuak aurreko ekitaldiei buruz izan duen bilakaera ere.

Hasteko, aipatutako bi aurrekontu-proiektuon inguruko ondorioztapen erkide batzuk azpimarratuko ditugu, une honetan bizi dugun dezelerazio ekonomikoan are garrantzitsuago suertatzen direnak, edo suertatu beharko luketenak, behintzat. Hori dela eta, dokumentu honek testuinguru ekonomiko zehatz horretan kokatzen ditu uneoro aurrekontu-proiektuak, abaguneari nabarmentasun berezia emanez.

Horrez gain, gastuarekiko berezko loturarik ez duten alderdi batzuk, esaterako, aurrekontu-emaitza (gastuen eta sarreraren arteko lotura), aztertu ez ezik, sarrerarekin zerikusia duten zenbait xehetasun ere landuko ditugu, hala nola zor publikoa edo gastu fiskalak. Halaber, nazioarteko inguruneari ere erreparatuko diogu, osasuneko eta hezkuntzako gastu publikoak ELGAko gainerako estatueta-koekin erkatzekotan.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-proiektuarekin eta gastuaren bilakaerarekin loturiko alderdiak azaltzeari ekingo diogu. Nafarroako Gobernuak, aurrekontu-proiektuarekin batera, hurrengo ekitaldirako onartu nahi dituen zerga-erreformen proiektua aurkezten du, dokumentu honetan, besteak beste, aztertuko dugunez.

Aurrekontuen eduki zehatzak eta gizarte-ereduarekin zerikusia duten gainerako gaiek ez dute behar den heinean erakartzen hedabideen eta gizartearen arreta. Dokumentu honen xedea hutsune hori neutralizatzea da, hain zuzen, arlo bakoitzeko gastuaren xehetasunen gaineko eztabaida eta eduki horien egokitasunari buruzko gogoeta sustatzearen.

A. GASTUARI, SARRERARI ETA BI ALDERDIOK HEHEN DUTEN LOTURARI BURUZKO ONDORIOZTAPEN ERKIDEAK

1. HEGO EUSKAL HERRIRAKO TAXUTUTAKO AURREKONTU PROIEKTUEI BURUZKO ONDORIOZTAPENAK

Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak 2010eko ekitaldirako prestatu dituzten aurrekontu-proiektuak krisi ekonomikoaren garaian datoz, sektore pribatuaren atzera-jotzea nabaria delarik.

Horrela, barne-produktu gordinak urte arteko %4ko jaitsiera izan du Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn), 2009ko hirugarren hiruhilekoan, eta Nafarroakoak, %3,1ekoa. Azken hamabi hilabeteetan, 95.700 lanpostu galdu dira Hego Euskal Herrian (HEHn).

Egoerari entzungor eginez, berez urria zen gastu publikoa izoztu egin da 2010erako aurrekontuan (%1 gutxitu da EAEn, eta %0,1 gehitu da Nafarroan), ekonomiaren joera konpentsatzeari begira parte-hartze publikoa areagotu beharrean.

Eusko Jaurlaritzaren 2010erako aurrekontu-proiektuak, zehazki, 10.090 milioi euroko gastua jasotzen du, eta Nafarroako Gobernuarenak, berriz, 3.980 milioikoa. Era horretan, gastu publikoak Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian duen pisua, 2009an, aurreikusitako BPGd-aren %15,2koa izatetik %14,9ra igaroko da 2010ean, Nafarroako Gobernuaren gastuaren pisua, aldiz, %21,4an geratuko delarik. Hori dena, 2010erako aurreikuspen ekonomikoen arabera, atzeraldiak bere horretan jarraituko duen arren.

Ezinbestez, gastu publikoaren maila jaisteak zuzeneko eragina du gastu sozialaren mailan, eta horren jaitsieraren ondorioak baliabide gutxien eta euren beharrak asetzeko berezko aukera gutxien dituzten pertsonen nozituko dituzte.

Horrela, hezkuntzan, etxebizitzan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan eta Hego Euskal Herriko instituzioen eskumen diren beste esparru batzuetan Europako inguruneko herrialdeen aldean ditugun defizit sozial handiek berdin jarraituko dute, edo areagotu egingo dira.

Egoera ekonomikoaren zantzuak diru-sarrera publikoetan ere igartzen dira. Horrexegatik aipatzen dira hain maiz azkenaldian zerga-bilketaren beherakada bizia eta beherakada horrek gastu publikoan izango dituen ondorioak. Hala eta guztiz ere, aldi berean, HEHko gobernuek dirutza handiak uzten dituzte bildu barik, jarraian ikusiko dugunez, gastu fiskalen zioz. Desgrabazio horietako askoren aurrerakoitasuna oso zalantzakoa da, baina, duda barik, eta oraingo egoera ekonomikoan are larriagoa dena, benaz mugatzen dute gobernuen gastu-ahalmena.

Hortaz, 2010erako aurrekontu-proiektuek jarraitutasunezko joera argia ezartzen dute aurreko ekitaldietan onartutako aurrekontuei buruz, une honetako egoera ekonomiko ahula guztiz ahazturik, antza. Argi dago, beraz, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua, gizarte-premiak ez estaltzeaz gain, ez direla jokatzeko ari oraingo krisiak agintzen duen moduan.


2. AURREKO URTEETAKO AURREKONTU EMAITZAK

Gastuaren eta diru-sarreraren arteko loturak ebazten du urtealdi bakoitzeko aurrekontu-emaiza superabita ala defizita den. Horixe aztertuko dugu atal honetan, lehenbizi EAERI eta ondoren Nafarroari erreparatuz.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspenaren arabera, ekitaldiko defizita 1.621,8 milioi eurokoa izango da.

Hala ere, hazkunde ekonomikoaren urteetan ekitaldiak aurrekontu-superabit nabariaz itxi dituenek, Eusko Jaurlaritzak 4.457 milioi euroko superabita metatu du 1998az geroztik.

Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien Aurrekontu Emaiza (milioi eurotan). 1998-2009 (*)




Iturriak: 2008ko 4. hiruhileko aurrekontu-gauzatzearen estatistika, Administrazio Orokorraren 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena.

(*) 2009ko zenbatekoa lehenengo hiru hiruhilekoei dagokie.

2000tik aurrera, Nafarroako Gobernuak 3 urtealdi itxi ditu defizitez, eta 6, superabitez. Dena den, 2000z gero metatutako emaitzak 291,2 milioi euroko superabita agertzen du. Alegia: 2000tik honako ekitaldi guztietako emaitzak baturik, 291,2 milioi metatu dira.

2008ko urtealdiko emaitzak (dugun azken informazioa da) 324,4 milioi euroko defizita, hots, BPGd-aren %1,7koa, erakusten du.

**Nafarroako Gobernuaren Aurrekontu Emaitza
(milioi eurotan). 2000-2008**



Iturria: Nafarroako Kontu Orokorrak 2000-2008

Atal honetan, argi ikusten da hazkunde ekonomikoaren garaian Hego Euskal Herriko gobernuak tematu egin direla ahal zen guztia ez gastatzeko eta urtealdiak superabitez ixteko joeran.

Gaurko defizit-mailei buruz, honako hau aipatu behar dugu:

- Nahiko txikiak dira. Krisiari aurre egiteko, gastuak gehikuntza handia izan beharko luke, baina ez da hori egin.
- Defizitak, gastua handitzearen ondorio barik, diru-sarrereren beherakadak eragindakoak dira. Bilketaren urripenaren zati bat errenta handiek eta kapitalak ordaindu beharreko zergak gutxitzen dituen politika fiskalaren ondorioa da.

3. HEGO EUSKAL HERRIKO GOBERNUEN ZOR PUBLIKOA

Administrazioen aurrekontu-emaitzarekin loturik, zorpetze-mailari buruz mintzatu beharra dago, alegia, administraziook euren gastuak estali ahal izateko zorra jaulkitzen duten ala ez. Horixe aztertu dugu atal honetan.

Eusko Jaurlaritzak, 2010ean, 3.952,3 milioi euroko¹ guztizko zorpetzea aurreikusten du, nahiz eta, hori benetan beteko den, ala ez, jakiteko, 2010eko itxiera-datuak argitaratu arte itxaron behar izango dugun. Izan ere, azken urteetan aurreikusitako zorpetzeak urrundik ere ez baitira bete.

Bestalde, 2009rako aurreikusitako zor bizia 1.903 milioi eurokoa da, BPGd-aren %2,3koa², alegia.


Ekonomiaren hazkunde-urteetan, Eusko Jaurlaritzak gerora gauzatuko ez zituen hainbat kreditu-linea sinatu izan ditu, bai eta kontabilitatean zor bizi gisa islatu ere. Modu horretan, EJK 2.616,9 milioi euroko zor bizia zenbatetsi du 2009rako BPGd-aren %3,9 bestekoa, hain zuzen ere, bere kalkuluen arabera (grafikoan, 2009ko ekitaldiaren parean gailentzen den puntua).

Nafarroan, berriz, 2009ko zor publikoa 1.010,7 milioi eurokoa da; 2008koa baino %20,1 handiagoa, izan ere. 1998koarekin alderaturik, zorra %32 hazi da, 687,3 milioitik 1.010,7 milioi eurora, zehazki.

Nafarroako zor publikoak BPGd-ari buruz izan duen bilakaerak joera-aldaketa agertzen du 2007an, ordura arte, 1998tik hazita, urrituz joan baitzen: 1998ko BPGd-aren %7 bestekoa izatetik 2007ko %3,4ra, hain juxtu.

2009ko ekitaldian, Nafarroako BPGd-a %3 inguru gutxituko delarik, Nafarroako Gobernuaren zor publikoaren gehikuntza BPGd-aren %1,2koa baino ez da. Horrek ez du erakusten krisiari erantzuteko behar besteko borondaterik.

Zor Publikoa (BPGd %).
Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. 1998-2009



Iturriak: Administrazio Orokorraren 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, EAE-ko Administrazio Orokorraren urteko kontuak 1998-2008, Eustat, 2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorraren Betearazpen-Egoera, Nafarroako Kontu Orokorrak 1998-2008, IEN

Ondorio gisa esan daiteke 2008an eta 2009an zor publikoaren pisuak nolabaiteko gorakada egin duela, baina oso urrun dago oraindik Europar Batasunak bertako estatu kideei baimentzen dien %60ko gehieneko zorretik. Bai EAEn, bai Nafarroan, zor publikoak askoz handiagoa izan behar du, gaur egungoa eta 2010erako aurrekontuetan jasotakoa baino.


4. GASTU FISKALAK

Gastu fiskalak Administrazioak zergen bidez bildu ahalko lituzkeen baina zerga-arautegian bertan xedatutako salbuespen, arintze, kenketa eta abarren zioz biltzen ez dituen diru-kopuruak dira; hau da, horrelako salbuespen, kenketa eta antzekorik egon ezean, zergadunek ordaindu beharko lituzketen kopuruak.

Eusko Jaurlaritzak 2010erako aurreikusitako gastu fiskalen zenbatekoa 5.807,5 milioi eurokoa da, alegia, BPGd-aren %8,6 beste.

Gastu fiskalen tamainaz ohartzeko, gogora dezagun, ondoko grafikoak erakusten duenez, gastu fiskalik ez balego, diru-sarrerak %52,1 handiagoak liratekeela.

Gastu Fiskalak eta Benetako Sarrerak (Guztizkoaren %). Eusko Jaurlaritza, 2010




*Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko
Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010*

BEZean, 2.499 milioi euro (gastu fiskalen %43) utziko dira bildu gabe; PFEZan, 2.365 milioi (%40,7) izango dira, eta Sozietateen gaineko Zergan, 524,9 milioi (%9).

Nafarroako gastu fiskalak 1.483,4 milioi eurokoak dira. Alegia, gastu fiskal horiek gabe, zerga-bilketa %37,4 handiagoa litzateke.

Gastu Fiskalak eta Benetako Sarrerak (Guztizkoaren %). Nafarroako Gobernua, 2010



Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010


Atal honek erakusten duenez, sarreretan, ustez, jaitsiera bizia igar-tzen deneko abagune honetan, dirutza itzelak uzten dira zergen bidez bildu gabe, oso eztabaidagarriak diren erabakien ondorioz, bien bitartean, zenbait beharretarako dirurik ez dela egongo sinestara nahi digutelarik.

5. OSASUNeko GASTU PUBLIKOA, EUROPAKO TXIKIENA

Hego Euskal Herriak osasunean gastatzen duen diru publikoaren eta nazioarte hurbileko herrialdeek gastatzen dutenaren artean, izugarritzko aldea dago. Europar Batasuneko 15 estatuetatik batek ere ez du EAEk edo Nafarroak baino BPGd portzentaje txikiagorik bideratzen osasuneko gastu publikora.

Ildo horretan, ELGAko batez bestekoari buruz dugun diferentziaziala nabaria da; izan ere, ELGAN, 2007an³, osasuneko gastu publikora BPGd-aren %6,5 zuzendu zelarik, HEHko portzentajea %4,4koa da soilik (%4,4koa EAEn eta %4,6koa Nafarroan). Beraz, HEHn, berez egindakoa baino 1.748,4 milioi euro gehiagoko gastu publikoa (1.391,1 milioikoa EAEn eta 357,3 milioikoa Nafarroan) egin beharko zen osasun arloan, ELGAko batez bestekoaren pisura iriste aldera. Bestela esateko: osasuneko gastu publikoak %46,5 handiagoa izan beharko zuen ELGAko batez bestekora heltzeko. Ez dugu ahaztu behar defizit horiek urtero-urtero errepikatzen direla.

Osasuneko Gastu Publikoa (BPGd %). ELGA 2007³




Iturriak: ELGA, IEN, Eustat, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza

6. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA, EUROPAKO TXIKIENA

Hezkuntzako gastu publikoan egiten den esfortzuan ere ageri da jauzi ikusgarria Hego Euskal Herriaren eta nazioarte hurbilaren artean. Izan ere, bai EAE, bai Nafarroa Europar Batasuneko azken tokian ageri dira aldagai horretan ere, eta ELGako batez bestekoa-
rekiko alde garrantzitsua da, kasu honetan ere.

Datu zehatzetara joaz, hezkuntzako gastu publikoa BPGd-aren %3,4koa izan zen 2006ko ekitaldian³ (%3koa Nafarroan eta %3,5koa EAEn). Hortaz, 1.216,9 milioi euro gehiago (892,3 milioi EAEn eta 324,6 milioi Nafarroan) gastatu beharko ziren hezkuntzan, ELGako batez besteko esfortzu-mailara heltzeko. Edo beste modu batez esanda: HEHko hezkuntzako gastu publikoak %45,8ko gehikuntza izan beharko luke, arlo horretan urtez urte ditugun defizitak gainditzeko.

Hezkuntzako Gastu Publikoa (BPGd %). ELGA, 2006³



Iturriak: ELGA, IEN, Eustat, Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzak

B. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA 2010. ELAREN BALORAZIOA

1. GASTU PUBLIKOAREN BEHERAPENA 2009KO URTEALDIKOAREKIKO

Eusko Jaurlaritzak (Ejk) 2010eko ekitaldirako aurkeztutako aurrekontu-proiektuak 10.089,8 milioi euroko gastua jasotzen du, Espainiako Gobernuari AHTaren eraikuntzagatik dagozkion zenbatekoak kenduta. 2010erako aurrekontu-zuzkidura horrek 94,1 milioi euroko beherapena adierazten du 2009ko gastu-aurreikuspenarekiko, 2009ko hori, zehazki, 10.184 milioi eurokoa delarik. Alegia, krisi ekonomikoa bete-betean murgildurik gaudela eta ekimen pribatua nabarmenki urritzen ari delarik, Eusko Jaurlaritzak,

diru-publikoaren parte-hartze handiagoaz konpentsatu beharrean, larriagotu egiten du egoera, gastua %0,9 murriztuz.

Eusko Jaurlaritzaren gastuak ekonomian duen pisua 2009an BPGd-aren %15,2 bestekoa izatetik BPGd-aren %14,9ra jaitsiko da 2010ean. Dirutan hitz eginez, horrek esan nahi du 2010erako aurrekontu-proiektuak 204,6 milioi euro handiagoa izan beharko lukeela, 2009ko gastu publikoari aurreikusten zaion pisuari eusteko (BPGd-aren %0,8ko gutxipena aurreikusten bada ere).

Aurrekontu-zuzkidura handiena Osasun eta Kontsumo Sailari dagokio; zehazki, 3.525,6 milioi euro, hots, guttizkoaren %34,9. Hurrengo handiena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena da, 2.747,3 milioi euro eta guttizkoaren %27,2arekin. Ondoren, Herrizaingo Sailaren zuzkidura da handiena: 710,3 milioi euro, hau da, guttizkoaren %7. Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak 622 milioi euroko zuzkidura (%6,2) izango du. Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailari, berriz, 478,6 milioi euroko zuzkidura, guttizkoaren %4,7, esleitu zaio. Eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailera 289 milioi euroko zuzkidura (%2,8) bideratuko da.

2010erako Aurrekontu Proiektua eta 2009ko Likidazio Aurreikuspena. Eusko Jaurlaritza

	2010			2009	
	Milioi euro	Guz. %	BPG%	Milioi euro	BPG%
Osasuna eta Kontsumoa	3.525,6	34,9	5,2	3.472,2	5,2
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	2.747,3	27,2	4,0	2.736,6	4,1
Herrizaingoa	710,3	7,0	1,0	706,4	1,1
Lana eta Gizarte Gaiak	622,0	6,2	0,9	619,2	0,9
Etxebizitza, Herrilanak eta Garraioak (*)	478,6	4,7	0,7	515,2	0,8
Ingurum., Lurralde Pl., Nekaz. eta Arrantza	289,0	2,9	0,4	334,3	0,5
Beste batzuk	1.717,0	17,0	2,5	1.800,0	2,7
Guztira	10.089,8	100,0	14,9	10.184,0	15,2


Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, Administrazio Orokorren 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Eustat

(*) Espainiako Gobernuari AHTaren eraikuntzagatik dagozkion kudeaketa-kredituak (225,4 milioi euro, 2010eko aurrekontuan, eta 25,7 milioi, 2009ko gastu-aurreikuspenean) kenduta

Gastu publikoak ekonomian duen pisuaren bilakaera

Hurrengo grafikoan, Eusko Jaurlaritzaren gastuak 1998az gero ekonomian izan duen pisuaren bilakaera ikus dezakegu. Gastuaren pisua ia konstante mantendu da aztertutako aldi osoan zehar, nahiz eta 2009an eta 2010ean nolabaiteko gorakada ageri den. Horren arrazoa BPGd-ak azken bi urtealdi horietan agertzen duen jaitiera da, gastuaren gehikuntza barik.

Gastu Publikoa (BPGd %). Eusko Jaurlaritzaren 1998-2010 (*)



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren proiektua 2010, Administrazio Orokorren 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuak 1998-2008, Eustat

(*) Espainiako Gobernuari AHTaren eraikuntzagatik dagozkion kudeaketa-kredituak (225,4 milioi euro 2010eko aurrekontuan eta 25,7 milioi 2009ko gastu-aurreikuspenean) kenduta


2. OSASUNeko GASTU PUBLIKOAK

Osasun eta Kontsumo Sailaren kontsumo-atalera bideratutako 6,5 milioi euroak alde batera utzirik, 2010eko urtealdirako osasunean aurreikusitako gastua 3.519,1 milioi eurokoa da, hots, BPGd-aren %5,2 bestekoa. Era horretan, 2009ko itxiera-aurreikuspenari buruz, etsi egiten zaio osasuneko gastu publikoaren pisuari.

Osasuneko gastu publikoaren pisuak 1998tik aurrera izan duen bilakaera guztizko gastuarenaren antzekoa da, aztertutako aldi

osoan zehar joera kontinuista hautematen baita, azken urteetan, BPGd-ak izan duen gutxipenaren zioz, nolabaiteko gorakada erakusten badu ere.

**Osasuneko Gastu Publikoa (BPGd %).
Eusko Jaurlaritza 1998-2010(*)**



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, Administrazio Orokorren 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuak 1998-2008, Eustat


(*) Kontsumo-ataleko diru-zenbatekoak (6,5 milioi euro 2010eko aurrekontuan eta 3,4 milioi 2009ko gastu-aurreikuspenean) kanpoan utzita.

3. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

2010ari begira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailerako aurreikusitako gastua 2.747,3 milioi eurokoa da, hots, BPGd-aren %4 bestekoa. Hortaz, hezkuntzako gastu publikoaren pisua urritu egin da zertxobait 2009koari buruz, zeinetan itxiera-aurreikuspenaren arabera, xede horretara BPGd-aren %4,1 beste bideratuko baita.

Hezkuntzako gastu publikoaren pisuak 1998ko ekitalditik aurrera izan duen bilakaera guztizko gastu publikoarenaren antzekoa da, joera orokorra mantentzea delarik (BPGd-an izandako urripenaren ondorioz, azken urteetan jazo den gorakada leunarekin ere).

Hezkuntzako Gastu Publikoa (BPGd %). Eusko JaurlaritzA 1998-2010



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, Administrazio Orokorren 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuak 1998-2008, Eustat


Hezkuntzako gastu publikoa aztertzean, hezkuntza-tarteei erreparatzen badiegu, haur hezkuntzarako eta lehen hezkuntzarako, 976,8 milioi euroko gastua, BPGd-aren %1,44 bestekoa, aurreikusten dela ikusten dugu; bigarren hezkuntzara, osabidezko hezkuntzara eta lanbide-hezkuntzara, 958,1 milioi euro (BPGd-aren %1,41) zuzenduko dira, eta unibertsitate-hezkuntzara, berriz, 368,5 milioi euro, alegia, BPGd-aren %0,54.

Hezkuntza-tarteetako gastu publikoaren bilakaerak esfortzu-aldaketa erakusten du, 1998az gero haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako esfortzua handituz (nahiz eta inola ere ez beharko zen heinean) eta bigarren hezkuntzako, osabidezko hezkuntzako eta lanbide-hezkuntzako urrituz joan baitira. Ildo horretan, 1998an, bigarren hezkuntzara, osabidezko hezkuntzara eta lanbide-hezkuntzara haur eta lehen hezkuntzetara baino BPGd-aren 0,33 puntu gehiago bideratzen zirelarik, 2008ko ekitaldian bai batean bai bestean egiten diren esfortzuak berdindurik ageri dira, eta dirudienez, 2009an eta 2010ean, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako gastua bestea baino handixeagoa izango da.

Hezkuntza-tarteen bilakaera ezberdinak gorabehera (unibertsitate-hezkuntzako esfortzuak bere horretan jarraitzen du), lehen aipatu dugunez, hezkuntzako guztizko gastuaren pisua ez da aldatu 2010ean, eta esan daiteke jazotakoa hezkuntzako premia larrie-

nen arabera irakaskuntzako guztizko gastuan egindako barne-doi-keta bat besterik ez dela.

Hezkuntzako Gastu Publikoa tartez tartea (BPGd %). Eusko Jaurlaritzaren 1998-2010



Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren proiektua 2010, Administrazio Orokorren 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuak 1998-2008, Eustat

4. ETXEBIZITZAKO GASTU PUBLIKOA

2010eko aurrekontuetan, Etxebizitza Saila da ziurrenik astinduen, arlo horretan aurreikusitako gastua 178,1 milioi eurokoa baita, 2006ko ekitalditik honako txikiena, hain zuzen ere. Zehazki, nahiz eta etxebizitzako gastuak ekonomian duen pisu urria BPGd-aren %0,3an geratu den, 2010eko aurrekontuetan xede horretara bideratzen den zenbatekoa 2009koa baino 14,9 milioi euro txikiagoa, 2008koa baino 20,6 milioi euro txikiagoa eta 2007koa baino 10,8 milioi txikiagoa da.

**Etxebizitzako Gastu Publikoa (Milioi euro eta BPGd %).
Eusko Jaurlaritz, 2000-2010**

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Milioi euro	86,4	86,3	119,2	136,7	154,3	157,4	171,6	188,9	198,8	193,0	178,1
BPGd %	0,2	0,2	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3	0,3

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, Administrazio Orokorren 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren Aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Urteko Kontuak 1998-2008, Eustat

C. NAFARROAKO GOBERNUAK 2010ERAKO AURREKTUTAKO AURREKONTU PROIEKTUA ETA ZERGA ERREFORMAK

SARRERA

Nafarroan, 2010erako aurrekontu-proiektuak zenbait zerga aldatzeko eta arlo horretako beste neurri batzuk xedatzeko Foru Lege aurreproiektu bat dakar berekin. Azterlan honetan, UPNren eta PSN-PSOEren artean adostu dituzten bi proiektu horiek aztertuko ditugu.

Azterlan honen lehenengo atalean, aurrekontuan jasotako gastuari buruz mintzatuko gara, bai aurrekontuaren zati handiena, bai interes bereziko partidak eta sailak aztertuz eta baloraturaz. Bigarren atalean, planteatutako zerga-erreformei eta horien ondorioei begiratuko diegu.

1. AURREKONTU PROIEKTUAREN ANALISIA

a) Taxututako aurrekontua engainagarria da

Nafarroako Gobernuak, oraingoan ere, benetako gastu bailiran aurkezten ditu zerga-gastu batzuei dagozkien partidak, diru-kopuruok gastuko beste edozein partida legez agertuz. Alegia, zerga-arrazoengatik biltzen ez diren fondoak gastu publiko direla pentsarazi nahi dute.

Nafarroako Gobernuak dagoeneko ohitura bihurtu duen jokaeira horren helburua aurrekontuak puztea da, Nafarroako gastu publikoa berez dena baino handiagoa dela ikustarazi nahiz.

Jokabide horrek inguruko beste ezein herrialde edo lurraldetan ez du aurrekaririk.

Foru Erkidegoko Gobernuak 2010erako aurkeztu duen aurrekontuan, 4.386,7 milioi euroko gastua ageri da guztira. Dena den, biltzeke utzi arren gastu bailiran agertzen diren diru-sarreraren partidak kendu ondoren, 2010erako benetako aurrekontua 3.979,9 milioi eurokoa da, hau da, Nafarroari dagokionez 2010erako aurreikusitako BPGd-aren %21,4 bestekoa.

b) Gastua izoztu egin da

Osasun Departamentua da gastuan diru gehien esleitu zaiona, aurrekontuaren ia laurden bat dagokiolarik: 990,9 milioi, hots, BPGd-aren %5,3, hain zuzen ere. Bigarren partida handiena Ekonomia eta Ogasun Departamentuarena da, aurrekontuaren %18arekin (715,7 milioi euro). Hurrengo zuzkidura handiena Hezkuntza Departamentuarena da, gastu osoaren %16,5 (657 milioi), hau da, BPGd-aren %3,5, esleiturik.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aipamen berezia merezi du oraingoan. Departamentu horri bigarren gastu handiena esleitzen bazaio ere, ezin dugu ahaztu Estatuarekiko Hitzarmena sail horretan sartuta dagoela, eta, beraz, Nafarroak Estatuko diru-kutxetara igortzen duen fondo-ekarpena ere bai.

Estatua doan ekarpen hori 541,7 milioi eurokoa da (Nafarroako 2010erako BPGd-aren %2,9), 2009rako aurreikusitakoa 532 milioi izanik. Hortaz, Estaturako ekarpena zenbateko horretatik kendu ostean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren aurrekontua 174 milioiokoa da.

Era berean, Nafarroako Gobernuak 2010erako aurkeztutako aurrekontua, Estaturako ekarpena kendutakoan, 3.438,2 milioi eurokoa izango da.

Modu horretan, Nafarroako Gobernuak izoztu egiten du gastua. 2010erako aurrekontua 2009ko aurrekontu bateratua baino 4,2 milioi euro handiagoa da (%0,1 handiagoa).

Bilakaera hori departamentuz departamentu azterturik ikusten denez, Osasun Departamentuaren zuzkidura da gehien hazi dena, bai diru-kopuruari (2009an baino 83,3 milioi gehiago), bai portzentajeari (%8,4 handiagoa da beraren aurrekontua) erreparatuta. Bigarren aurrekontu-igoera handiena Ekonomia eta Ogasun Departamentuarena da (55,6 milioi gehiago).

Bestalde, gehien murriztu diren aurrekontuak honako hauek dira, murrizketa handienetik hasita: Herri Lanetarako Departamentuarena (horren zuzkidura 94,9 milioi -hau da, %51,7-, txikiagoa da); Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuarena (%11,4 murriztagoa), eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuarena (9,6 milioi gutxiagoko zuzkidura).

**Aurrekontu Proiektua. Nafarroa 2010, 2009
(Milioi euro, BPGd %)**


	2010		2009		Aldea 2009 / 2010	
	Milioi euro	BPGd%	Milioi euro	BPGd%	Milioi euro	%
Osasuna	990,9	5,3	907,6	4,9	83,3	8,4
Ekonomia Eta Ogasuna	715,7	3,9	660,0	3,5	55,6	7,8
Hezkuntza	657	3,5	656,8	3,5	0,2	0,0
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	208,8	1,1	232,6	1,3	-23,8	-11,4
Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaiak	315,3	1,7	324,9	1,7	-9,6	-3,1
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	288,8	1,6	287,2	1,5	1,5	0,5
Toki Administrazioa	256,7	1,4	259,0	1,4	-2,4	-0,9
Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	78	0,4	75,1	0,4	2,8	3,6
Landa Garapena eta Ingurumena	174	0,9	176,7	0,9	-2,6	-1,5
Herri Lanak, Garraioak eta Komunikazioak	183,6	1	278,6	1,5	-94,9	-51,7
Vianako Printzea Erakundea - Kult. eta Turis	78,1	0,4	81,3	0,4	-3,2	-4,1
Erakundeekiko Harrem. eta Gobernuaren El.	14,2	0,1	17,5	0,1	-3,3	-23,1
Nafarroako Parlamentua	17,7	0,1	17,1	0,1	0,5	2,9
Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua	0,6	0	0,6	0,0	0,0	0,0
Nafarroako Kontseilua	0,6	0	0,6	0,0	-0,0	-0,1
Guztira	3.979,9	21,4	3.975,7	21,4	4,2	0,1

*Iturriak: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, 2009rako
Nafarroako Aurrekontu Orokorren Betearazpen-Egoera, IEN*

c) Gastu publikoak ekonomian izan duen bilakaera

Aurrekontu proiektua onartuz gero, Nafarroako Gobernuaren 2010eko gastuari ekonomian dagokion partea BPGd-aren %21,4koa izango da; 2009ko balio bera, alegia.

Nafarroako Gobernuaren Gastu Publikoa (BPGd %) 1998-2010




Iturriak: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, 2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Betearazpen-Egoera, Nafarroako Kontu Orokorrak 1998-2008, IEN

d) Osasuneko gastu publiko handiagoa behar da

Aurrekontu-gehikuntza handiena duen Departamentua Osasunarena da. Departamentu horren zuzkidura, 990,9 milioi eurokoa, BPGd-aren %5,3 bestekoa da, eta %4,9ko gehikuntza izan du 2009ko aurrekontuan jasotakoaren aldean. ELAk behin eta berriz erreklamatu du osasuneko gastu publikoa handitu beharra. 2010eko bilakaera norabide onean doa, nahiz eta, bistan denez, ez da behar bestekoa. Gogoan izan behar dugu, halaber, 2010ean jazo-takoan BPGd-aren jaitsierak ere baduela zerikusia. Izan ere, BPGd-a urrituz gero, gastuak haren portzentaje handiago bat adieraziko du, nahiz eta dirutan zenbatetsirik, gehikuntza eskasa izan.

Osasuneko Gastu Publikoa (BPGd%), Nafarroa 1998-2010



Iturriak: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, 2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Betearazpen-Egoera, Nafarroako Kontu Orokorrak 1998-2008, IEN

Osasuneko gastu publikoa osatzen duten partidak aztertzean ikus daitekeenez, lan-osasuna hobetzeko inbertsioak egin beharrez, partida horretara zuzendutako zuzkidura gutxitu egin da, diruzenbaterakoari dagokionez, BPGd-ari buruzko portzentajea 2009koaren antzekoa den arren: %0,3koa, zehazki. Oinarrizko laguntzarako zuzkidura 277,2 milioi eurokoa da, hots, BPGd-aren %1,49 beste-koa.

Osasuneko Gastu Publikoa, atal zehatzak. Nafarroa, 2009-2010

	2010		2009	
	Milioi euro	BPGd%	Milioi euro	BPGd%
Lan-osasuna	4,9	0,03	5,0	0,03
Oinarrizko laguntza	277,2	1,49	269,5	1,45


Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, 2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Betearazpen-Egoera, IEN

e) Europako azkenak, Hezkuntzako Gastu Publikoan

2010erako aurrekontu-proiektuak 657 milioi euroko gastu publikoa, BPGd-aren %3,5ekoa, aurreikusten du hezkuntzan.

Aurreko ekitaldiarekiko aldea oso txikia da, 0,2 milioi euro gehiagokoa, hain zuzen ere, eta ondorioz BPGd-an dagokion portzentajea (%3,5) ez da aldatu.

Hezkuntzako Gastu Publikoa (BPGd %) Nafarroa. 1998-2010



Iturriak: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, 2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Betearazpen-Egoera, Nafarroako Kontu Orokorrak 1998-2008, IEN

f) Euskarako Gastu Publikoa

Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan, euskarako gastua gero eta txikiagoa da. 2010erako, 4 milioi euroko gastua aurreikusten da, alegia, BPGd-aren %0,022koa.

Euskarara bideratzen den zuzkiduraren zati handiena, 2010ean 3,2 milioi euro euskarabidea izeneko institutura (Nafarroako Euskararen Institutura) joango da. Partida hori 2009koa baino 0,3 milioi euro gutxiagokoa da, hau da, %9,3ko lerma izan du azken urtealdian, eta %26,7koa 2008koari buruz.

Euskarabideara zuzendutako partida (milioi euro). Nafarroa, 2010, 2009, 2008 (*)

2010	2009	2008
3,2	3,5	4,0

Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, 2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Betearazpen-Egoera, Nafarroako Kontu Orokorrak 2008

(*) 2010eko ekitaldiari buruzko informazioa aurrekontu-proiektuan jasota da; 2009ko ekitaldikoa, aurrekontu bateratukoa, eta 2008koa, gauzatu-tako aurrekontukoa.

Euskarabideak ikerketa, garapen, prestakuntza eta aholkularitza lanak egiten ditu, bai administrazio publikoentzat, bai horietatik kanpo, euskararen inguruan betiere. Institutu horri zuzendutako zuzkidurak, besteak beste, Euskaltzaindiarekiko akordiora zuzendutako partidak, eremu euskalduneko ikastolentzako diru-laguntza berezia, Gau Eskoletarako diru-laguntza, hedabideetan euskararen inguruan garatzeko programak, hizkuntza-politikaren arloko analisi, ikerlan eta ebaluaketarako programak, ikerlanak, proiektu soziolinguistikoak eta abar hartzen ditu barne.

g) Etxebizitzako inbertsioa

Etxebizitza Departamentuak 78 milioi euro baino gutxiagoko aurrekontu-zuzkidura dauka esleituta. Nafarroako Gobernuak taxututako aurrekontuetan xede horretara 240 milioi euro bideratuko direla jaso arren, berez, horko 162 milioi zerga-gastuei dagozkie eta, beraz, ez da gastatu ahal den diru, bildu gabe geratuko dena baizik. Hortaz, Nafarroako Gobernuak Etxebizitzan benetan egingo duen gastua Nafarroako aurrekontuaren %1,96 da, alegia, BPGd-aren %0,4 bestekoa.

Datu horren arabera, berriz, argi geratzen zaigu etxebizitzagatiko desgrabazioak 162 milioi eurokoak izango direla, hots, etxebizitzako gastu publikoaren bikoitza baino handiagoak.

Etxebizitzako gastu publikoaren gainetik zerga-arintzeak lehenesteko hautu politikoak ez dakarkie inolako onurarik premia larrian bizi diren pertsoneri, diru-sarrera publikoak etxebizitza erostea erabakitzen dutenei emanaz, jabetza saritzen baita. Zehatz esateko, desgrabazioen %90,3 erosketara zuzentzen dira, alokairurako, gainerako %9,7 baino aurreikusten ez delarik.

Etxebizitzako Zerga Arintzeak. Nafarroa, 2010

	Milioi euro	%
Etxebizitza-alokairugatiko zerga-gastuak	14,8	9,7
Ohiko etxebizitzan inbertitzeagatiko zerga-gastuak	147,2	90,3
Guztira	162	100

Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010

Departamentu horrek hiru programa ditu ardatz. Lehenengoaren xedek Etxebizitza arloaren zuzendaritza eta berearekin loturiko zerbitzu orokorrak eta lurraldearen antolamendua dira, eta 2,3 milioi euroko zuzkidura du; lurralde- eta hirigintza-plangintzetarako, 7,5 milioiko partida aurreikusten da, eta etxebizitzak eraikitzeke eta birgaitzeko, 68,2 milioi eurokoa.

Etxebizitzako gastua 2010erako aurreikusitako BPGd-aren %0,4 bestekoa da, 2009an bezala. 2009tik aurrerako bilakaera hutsala izan da, 2010erako aurreikusitako gastua 2,8 milioi euro gehiagokoa da eta (2009ko aurrekontu bateratua 75,1 milioi eurokoa da).

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua. Nafarroa, 2009-2010

	2010		2009
	milioi euro	BPGd %	milioi euro
Ingurumen, lurraldearen antolamendu eta etxebizitza arloetako zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	2,3	0,01	2,5
Lurralde- eta hirigintza-plangintzak	7,5	0,04	5,3
Etxebizitzen eraikuntza eta birgaitzea	68,2	0,37	67,3
Guztira	78	0,42	75,1

Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, 2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Betearazpen-Egoera, IEN

h) Zerga iruzurrari ez zaio kontra egiten

Zerga-iruzurraren kontrako politikak, eraginkorra izango bada, berreskuratu egin behar du iruzurraren zioz bildu ez den dirua. Errenta guztiak epea iraungi aurretik ikuskatu ahal izateko adina baliabidez hornituriko Ikuskaritza-taldea izatea iruzurrari biderik ez uzteko xedea duen hautu politikoa da. Ezerk ere ez du arrazoi-tzen horrela ez jokatzea, zerga-iruzurrarekiko permisibitatea izan ezik.

2010erako Aurrekontu Orokorren Proiektuak zergak ikuskatzeko programa hartzen du barne.

Zehazki, Nafarroa osoan, 44 pertsona arituko dira guztira zerga-ikuskapenak egiten, nahiz eta, gaur egun, 44 horien artean, ogasun-teknikariei dagozkien 2 postu hutsik dauden. Hortaz, 17 ogasun-teknikarik, 13 kudeatzailek eta 4 administrarik osatzen dute lantaldea, gainerakoak, zerbitzuko zuzendaria aparte, unitate, sail zein bulegoetako buruak direlarik. Hau da, hutsik dauden bi lanpostuak izan ezik, ikuskaritzan jardungo duten pertsonen kopurua ez da handitu, aurreko urtealdietakoekiko.

Horrez gain, aurreikusitakoaren arabera, egingo diren ikuskapenak 300 eta 400 artean izango dira. 2003an, ikuskatu beharreko pertsona fisikoak edo juridikoak 350 ziren jadanik, eta 2009an, 350 eta 400 artean.

Alegia, Ikuskaritza Zerbitzuko pertsona bakoitzak egin beharreko ikuskapenen kopurua urritu egin da: 2003an, 11 ziren; 2009an, 9-10, eta 2010ean, 7-9 izango dira.

Zerga Ikuskaritzari buruzkotatuak. Nafarroa, 2003, 2009, 2010

	2003	2009	2010
Giza baliabideak	31	42	44
Ikuskatu beharreko zergadunen kp.	350	350-400	300-400
Ikuskapenen kp. ikuskatzaileko	11	9-10	7-9

Iturria: Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektua 2010, 2009rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Betearazpen-Egoera, Nafarroako Kontu Orokorrak 2003

Ikuskaritza-lanetan diharduten pertsonen kopurua eta ikuskatzaileen txikiegiak dira.

Nafarroako zerga-ikuskatzaileen kopuru irriarriaz ohartzeko, erkatu dezagun, adibidez, Foruzaingoa osatzen duten agenteen

kopuruarekin. Zerga-iruzurra jazartzeko, Nafarroako Gobernuak 44 lagun jarri ditu; Foruzaingoa, berriz, 900 bat lagunek osatzen dute, eta urtealdi honetan beste 100 pertsona sartzea dago aurreikusita. Horrek argi erakusten du ikuskaritzarako giza baliabide gehiago ez izatea borondate politikorik ezaren ondorioa dela.

2. ZERGA ARLOA: ZERGEN ERREFORMAREN AZTERKETA

Sarrera

2010ean, zerga-erreformak egongo dira, berriro ere. Oraingoan, Ogasunaren diru-sarrerak nabarmenki urritu eta, beraz, Gobernuak zerga-bilketa handitu beharrean dagoelako planteatzen dira erreforma horiek.

Zerga-erreformek gehien aldaraziko dituzten zergak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zerga izango dira. Hartuko diren neurri fiskalen emaitza Nafarroako Gobernuaren zerga-politika kapitalistaren erakusgarri zehatza da: PFEZak diru gehiago bilduko du lan-errenten bitartez, eta enpresek ordaindu beharreko Sozietate Zerga, ordea, merkeagoa izango da.

a) Zerga-erreformen banakako azterketa

· PFEZ

Funtsean, honako bi aldaketa hauek egingo dira PFEZan: lehenengo, urtean 10.600 eta 45.800 euroko lan-errentak jasotzen dituzten pertsonen lanegatik egiten zaien kenketa murriztean datza, tarte horri 45.800 eurotik gorako irabaziak dituztenentzat ezarrita zegoen zerga-kenketa bera esleitzuz.

Neurri horren ondorioz, zerga-bilketa handiagoa izango da, 50 milioi euro handiagoa, hain zuzen ere, eta 10.600 eta 45.800 euro arteko lan-errentak dituztenek ordainduko dute diferentzia hori, errenta horientzako zerga-kenketan orain arte zegoen mailakakotasuna ezeztatzearen ondorioz.

PFEZan eragina izango duen bigarren neurriaren ondorioz, 6.000 eurotik gorako etekinak dituztenek aurrezkiaren likidazio-oinarriaren arabera ordaindu beharreko zerga-tasa igo egingo da, %18tik %21era, zehazki. Hasiera batean, Lege Proiektuak %18tik %20ra igotzea aurreikusten zuen, eta tasa honekin, 11,2 milioi euroko gehikuntza suposatuko luke zerga-bilketan. Dokumentu hau egiteko garaian, ez da jakitera eman zerga-bilketan zenbateko gehi-

kuntza suposatuko duen tasa %21era igotzeak, beraz, kalkuluak Lege Proiektuak hasieran zekarren %20ko tasarekin eginak daude.

PFEZan egin nahi dituzten erreformek diru-sarrera handiagoak ekarriko dizkiote Ogasunari, 61,2 milioi euro gehiagokoak, zehatz esateko (6.000 eurotik gorako etekinak dituzten aurrezkiei %20ko tasa ezarritz, eta ez %21ekoa).

· Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen gaineko Zergaren inguruan egingo diren erreforma guztiek eredu berari jarraitzen diote, denek ere murriztu egingo baitute Administrazioak bildu beharreko zenbatekoa, zerga horretan aspaldion egindako aldaketen joera berari eutsirik.

Oraingo erreformak, zehazki, milioi bat eurotik beherako negozio-bolumena duten enpresei ekarriko die onura, horiek jasan beharreko tasa %23tik %20ra jaitsiko da eta. Horrela, 6 milioi euroko lerma eragingo da zerga-bilketan.

Bestalde, 1 milioi eurotik 9 milioira arteko fakturazioa duten enpresek 1 puntuko jaitsiera izango dute zerga-tasan, %28tik %27rako, hain justu. Erreforma horrek 3 milioi euroko ondorio negatiboa izango du zerga-bilketan.

Halaber, enplegua sortzeagatik egiten den kenketa ere handitu da aldi batez, bilketan 2 milioi euroko murrizketa eraginez.

Sozietateen gaineko Zergan eragina izango duen beste neurri bat kultura eta kirola sustatzeagatik egiten den kenketaren gehikuntza da. Neurri horren ondorioz, 1,2 milioi euro gutxiago sartuko dira Ogasunaren diru-kutxetara.

Sozietateen gaineko Zergaren erreforma fiskalek 12,2 milioi euroko urripena eragingo dute zerga-bilketan.

Sozietateen gaineko Zergan ondoz ondo egin diren erreforma guztiek zerga-tasa murriztea izan dute xede. 1996az gero, Nafarroako Gobernuak behin eta berriz onartu ditu zerga hori behertzeko erreformak.

Sozietateen gaineko Zergaren Tasak (%). Nafarroa 1996-2010

	1996	2001	2005	2007	2008	2009	2010
Enpresa handiak	35	35	35	32,5	30	30	30
< 9 milioi ¤-ko negoziadun enpresak	35	35	35	28	28	28	27
< 6 milioi ¤-ko negoziadun enpresak	35	32,5	32,5	32,5	28	28	27
< 1 milioi ¤-ko negoziadun enpresak	35	32,5	30	25	24	23	20

Iturria: ELAren Azterketa Bulegoa, zergari buruzko arautegian oinarriturik

· Beste neurri batzuk

Zerga batzuk aldarazteko eta beste zenbait neurri fiskal ezartzeko asmoz Foru Gobernuak aurkeztu duen Lege Aurreproiektuak beste zerga batzuetan eragina duten neurriak ere jasotzen ditu.

Gainerako zergetan egindako aldaketak ikuspuntu ekonomiko-tik ezin zenbatetsi daitezkeen arau-aldaketa hutsak edo gaurkotze-ak dira.

b) Ondorioztapenak

Aurkeztutako neurri fiskalek 49 milioi euro gehiagoko zerga-bilke-ta ekarriko dute. Bereziki azpimarratu behar da gehikuntza hori PFEZaren inguruan hartutako bi neurri bakarrik ahalbidetuko dutela, horien bitartez 62,2 milioi gehiago bilduko baitira, nahiz eta kopuru horretatik Sozietateen gaineko Zergaren erreformen ondo-rioz jasoko ez diren 12,2 milioi euroak kendu behar diren.

Zerga-erreforma erregresiboa da, orotara ikusirik, 10.600 eta 45.800 euro arteko soldata-errententzako kenketen mailakotasu-na kentzean eta enpresarien eta kapitalaren errenten gaineko presio fiskala urritzean datza eta.

PFEZaren erreformen ondorioz, langileen bizkar estaliko da zerga-bilketa handitu beharra. Izan ere, 10.600 eta 45.800 euro arte-ko errentek lanagatik egin dezaketen kenketa 45.800 euro baino gehiagoko errentek egin ahal dutena bestekoa izango da. Beraz, 17.000 euro irabazten dituzten soldatako langileek eta hortik gora-ko irabaziak dituztenek kenketa berbera izango dute PFEZan. Neurri horren eragin kaltegarria aberastzat ezin hartu daitekeen gizarte zati batek nozituko du.

PFEZan hartuko den beste neurri fiskal garrantzitsuak pribile- giozko tratu onartezina ematen die kapitalaren errentei, horiei gehienez %21eko tasa aplikatuko zaie eta.

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, gogoan izan behar dugu etekinak dituzten enpresek ordaindu beharreko zerga dela. Hau da, aurkeztutako neurriak ez die ezertan ere lagunduko orain- go egoera ekonomikoak jotako enpresei. Sozietateen gaineko Zergaren beharpenak ahalbidetzen duen lorpen bakarra enpresa- rik are kapital handiagoa pilatzea eta, horrela, aberastasunaren banaketan, soldatakoak ez diren errentei gero eta zati handiagoa esleitzea da.

ELAk Espainiako Gobernuak iragarritako jardunbidearen barruan kokatzen du oraingo zerga-erreforma hori, zenbait zuzen-

keta kosmetiko egin bazaizkio ere. Aitzitik, Hitzarmen Ekonomikoaren botere araugilea bertoko zerga-sistema berezia eratze-ko baliatu behar delakoan gaude. Mesede makala egiten zaio botere araugile horri, zerga batzuk, Madrilen aldatuko direlako, aldatzea erabakiz gero.

Hartutako neurriek krisira eraman gaituen zerga-eredu berarekin egiten dute bat. Eta aurrerantzean taxutuko diren politikek krisia eragin dutenen tankera berekoak izaten jarraitzen badute, nekez irtengo gara estualditik. Eredu fiskala aldatu ezean, ez da oraingo kiribiletik irteterik egongo, edo behar bezalako oinarririk gabe irtengo gara.

c) ELAren proposamenak

Proposatutako zerga-erreforma ez da Nafarroan behar duguna. Askoz zerga-sistema solidarioagoa behar dugu, bai eta zerga-bilketak Europako batez bestekoarekin berdindu ere (gurean, urtean, 1.340 milioi euro gutxiago biltzen dira), baliabideok gizarte-gastura zuzentzeko.

ELAren iritiz, lanarenak ez diren errenta guztiak zerga-betebeharrak iraungi aurretik ikuskatzea eta errenta handiek eta kapitalaren errentek ordaindu behar dituzten zergak handitzea izan behar du zerga-erreformaren xede nagusiak. ELAk haxe proposatzen du, zehazki: kapitalaren errententzako eskala berezia ezeztatzea eta PFEZaren oraingo gehienezko tasa duela 10 urte indarrean zegoen %53ra igotzea; tasa nominala %35era igotzea eta Sozietateen gaineko Zergaren kenketetan murrizketa zorrotza egitea; ondarearen gaineko zerga berriro ezartzea, eta ondare handiei zergarik ez ordaintzea ahalbidetzen dien ingeniartza fiskala desagerraraztea.

OHARRAK

¹ 2010erako aurrekontu-proiektuan jasotakoaren arabera, "EAEko Administrazio Orokorrak 2010eko ekitaldiko zorpetze-eragiketarako aurreikusitako gehienezko zenbatekoa 2.038,00 milioi eurokoa da", eta, horrez gain, haxe eransten du: "2010eko urtealdiaren itxierarako aurreikusitako zor-bolumena handitu egingo da, 1.914,35 milioi euroko legezko jaulkipen-muga agortuz gero".

² 491,9 milioi euroko zor bizia, 2008ko ekitaldikoa, gehi 2009ko ekitaldiaren itxierako aurreikuspenari dagozkion 1.411 milioi euroak.

³ Europa maila dugun azken informazioa dagokiona.

A series of horizontal dotted lines for writing, spanning the width of the page.